

EAEko hezkuntzako grebak langileen, ikasleen zein familien aldetik babes zabala izan du

Hezkuntza Sailari egoerak eskatzen duen ardura behingoz bere gain hartu eta aurrez aurreko ikasturte segurua eta adostua bermatzeko neurri zein baliabideak abian jartzea galdegiten diogu. Horrela soilik bermatu ahalko ditu osasuna eta kalitatezko hezkuntzara.

Jaurlaritzaren greba eta mobilizazioak oztopatzeko saiakeren gainetik, EAEko Hezkuntzan ordezkariak daukagun sindikatuok gaurko deitutako grebak oso babes zabala izan du. Zerbitzu minimoetan ez diren langileen ehuneko handi batek greba egin du. Bestalde, zerbitzu minimoak medio ikastetxean geratzera behartuak izan diren langileek ere ozen adierazi dute grebaren bitartez azaleratu nahi diren aldarriekiko beraien babesa. Osotara, greba egin ahal zuen langileen %70 grebara ateratu da, eta beste hainbestek bat egin dute zerbitzu minimoetan egon arren.

Jaurlaritzak greba desaktibatzen eta honen bitartez salatu eta azaleratu nahi ditugun arazoak ikusezin bihurtu nahi izan ditu, hildo horretatik, azken egunotan bere kudeaketa tamalgarria eta planifikaziorik eza ezkutatzeko saiakera nabariak egin duen bezalaxe. Alde batetik, inolako zehaztasun eta baliabide aurreikuspenik gabe, azken orduko alde biko bileretara deitu gintuen Sailburu berriak, ondorenean asmo propagandistiko hutsa baino ez zuten adierazpenak egiteko. Bestetik, atzo, azken momentuan inoiz baino zerbitzu minimo handiagoak ezartzen zituen agindua eman zuen jakitera, ikastetxeen antolakuntzan anabasa egoera berri eta onartezina sortuz.

Hala ere, langileok gaurko egunean antolatutako manifestazioetan izan dugun parte hartzea aipatzekoa da, pandemiak horrelako ekimen batera begira suposatzen dituen zailtasunak agerikoak izan arren, hiru hiriburutan egin diren manifestazioetan 17.000 (8.000 inguru Bilbon, 5.000 inguru Gasteizen eta 4.000 inguru Donostin) langiletik gora batu baikara. Tokiko ikastetxe ugari Guraso elkarteek ere parte hartu dute antolatu diren manifestazioetan, eta ikasle mugimendu ugari eman diote babesa greba egunari eta mobilizazioak antolatu dituzte gaurko egunerako.

Gure eskaerak argiak dira: langile kolektibo guztietan ratioak jaitsi eta plantillak handitzea, garbitzaile, sukaldari, 0-3ko haur hezitzaile, premia berezietako laguntzako espezialista, jangela eta garraioetako begirale zein irakasle izan; protokoloak jasotzen dituen Norberaren Babesarako Ekipamenduak ikastetxeetan lehenbailehen egotea, bereziki gertuko harremana duten premia bereziko espezialista zein hezitzaileen kasuan; geletan pertsonako 3m² eta 1,5 metroko distantzia egotea, geletan gehienez ere 10-15 ikasle egonik, 0-3 zikloan talde txikiagoak ahalbidetuz; espaziorik ez dagoenez bestelako eraikinak zein espazio naturalak baliatzea; sorturiko arrakala sozioekonomiko, pedagogiko, teknologiko zein euskararekikoa murrizteko neurri eta baliabideak jartzea; ikasle guztientzat jangela zerbitzua bermatzea; curriculumaren egokitzapen eta murriztea ikasleen behar emozionalak ere kontuan hartuz; egoera zaurgarri zein sentikorrean dauden langileak babesteko neurriak ezartzea eta kontziliatorako baimen ordaindua ematea.

Hezkuntza Sailari urgentziaz egoerak eskatzen duen ardura behingoz bere gain hartu eta aurrez aurreko ikasturte segurua eta adostua bermatzeko neurriak zein osasuna eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko baliabideak abian jartzea galdegiten diogu behingoz; bestela mobilizazioekin aurrera jarraitu beste biderik ez digu utziko.

Euskal Herrian 2020ko Irailak 15ean



La huelga de la CAPV en educación ha contado con un amplio apoyo tanto por parte de trabajadores y trabajadoras como del alumnado y de las familias

Pedimos al Departamento de Educación que asuma de una vez por todas la responsabilidad que la situación requiere y ponga en marcha medidas y recursos para garantizar un curso presencial seguro y consensuado. Sólo así podrá garantizar la salud y la educación de calidad

A pesar de los intentos del Gobierno de obstaculizar la huelga y las movilizaciones, la huelga convocada para hoy por los sindicatos con representación en Educación, ha contado con un amplio respaldo. Un alto porcentaje de trabajadores/as que no están en los servicios mínimos han secundado la huelga. Por su parte, los/as trabajadores/as que se han visto obligados a permanecer en el centro por servicios mínimos también han expresado su apoyo a las reivindicaciones que se pretenden poner encima de la mesa a través de la huelga. En total, el 70% de los trabajadores y trabajadoras que podía hacer huelga la ha secundado, y otros tantos se han sumado a pesar de estar en servicios mínimos.

El Gobierno Vasco ha querido desactivar la huelga e invisibilizar los problemas que queremos denunciar y hacer aflorar con ella. Han sido varios los intentos que durante los últimos días ha realizado por ocultar su lamentable gestión y su evidente falta de planificación. Por un lado, el nuevo Consejero nos convocó a reuniones bilaterales de última hora, en las que no hubo ningún tipo de concreción ni previsión de recursos, para después hacer declaraciones con una intención puramente propagandística; por otro, ayer dio a conocer una orden que establecía unos servicios mínimos más elevados que nunca, creando una nueva e inaceptable situación de caos en la organización de los centros.

A pesar de todo ello, la participación de los trabajadores y trabajadoras en las manifestaciones organizadas para hoy ha sido muy destacable, ya que, a pesar de las dificultades que supone la pandemia de cara a una iniciativa de estas características, en las manifestaciones que se han llevado a cabo en las tres capitales se han sumado más de 17.000 trabajadores (8.000 en Bilbo, 5.000 en Gasteiz y 4.000 en Donosti). Las asociaciones de padres y madres de numerosos colegios locales también han participado en las manifestaciones que se han organizado y numerosos movimientos estudiantiles han dado su apoyo a la jornada de huelga y han organizado movilizaciones para la jornada de hoy.

Nuestras demandas son claras: bajada de ratios y aumento de plantillas en todos los colectivos de trabajadores y trabajadoras; personal de limpieza, cocineros/as, educadores infantiles 0-3, especialistas en atención de necesidades especiales, monitores/as de comedores y transportes y profesoras y profesores; dotar a los centros escolares de EPIs, como recoge el protocolo, especialmente en el caso de las especialistas de apoyo; 3m² y 1,5 metros de distancia por persona en las aulas, con un máximo de 10-15 alumnos/as por aula (una proporción menor en las escuelas infantiles. Poner medidas y recursos para reducir la brecha tanto la tecnología como la del euskera; garantizar el servicio de comedor para todo el alumnado; adaptar y reducir el currículo teniendo en cuenta también las necesidades emocionales del alumnado; establecer medidas de protección del personal en situación de vulnerabilidad y sensibilidad y permiso retribuido para la conciliación.

Exigimos al Departamento de Educación que asuma de una vez por todas la responsabilidad que la situación requiere y ponga en marcha medidas para garantizar un curso presencial seguro y consensuado, así como recursos para garantizar la salud y la educación de calidad; de lo contrario no nos va a dejar más camino que seguir adelante con las movilizaciones.

Euskal Herria a 15 de septiembre de 2020



